

1. Nor zen Martin Azpilikueta?
2. Zer zuen izen goitia?
3. Zer zen haren saila?

II

GURE GIZONAK

MARTIN AZPILIKUETA *

Hiru idazti eman ditut Nafarroa behialako denboretako gora-beheretaz mintzaturik.

Gure gizon yakhintsu eta larrienetaz ere nahi dut zer-bait erran laburzki, bereziki gehienez gutisko ezagutuak dienetarik.

Hautarik bat da Martin Azpilikueta, *Doctor Navarro* izenarekin ezagutua.

Nafarroa-ko etxe berexienetarik¹ zen, aitorensemca, San Frantsisko-ren ahaide urbila, Barasoain-go yauregiaren yabea, eta han sortua 1491-an. Eskualduna zen, zeren eta denbora hartan ez baitzen, zorionez, oraino sartua erdara lekhu horietan.

Espainitarrek bethidanik mihia latza, bathere leguna izan dute beren erresumatik kanpoko izenen ikasteko.

Hamazazpi gisaz (dio Hermilio Oloriz-ek) deitzen zuten Espainiarrek gure yakintsua: *Pizcueta, Pazcueta, Pilazcueta*, eta holako izen bihurtu eta herrebeseekin, ezin xuxenki erranez haren deithura!...

Eta azkenian, buru hausterik ez ukhaiteko, deitzen zuten *El Doctor Navarro*, eta izen horrekin hedatu zen haren omen haundia bazter guzietan.

Azpilikueta, denbora hetako gizon yakhintsu larrienen arthekoa zen, Europa guzian aiphatua.

Lehenikan Orriagako abatia izana zen, ordian Elizako kargu haundia, Apezpikuaren ondokoa.

Gero Nafarroatik lekhotu zen, eta bere yakitate haundiaz, Frantzian, Cahors eta Toulouseko eskol-etxe nagusietan erakasle egona, bai eta Salamankan eta Portugaleko Coimbra eskol-etxe buruzagia.

Berantago Roma-rat yuan zen, eta han ere kargu haundienak ukhan zituen.

Aita Sainduak kenka nekeetan erabaki zuhurrak hartu behar zituelarik, bethi nahi zuen Azpilikueta-aren aholkua aditu, eta berarenganat deitzen zuen, eta hunen xedeak, oharak eta gogoetak entzuten.*

III ADITZ IKASKUNTZA

31. Eskualduna zen 32. Gintzayzkizuen

33. Deitzen zuten 34. Zincautan.

31. IZAN. Indicatif imparfait

Ni mintzen = j'étais

Hi hintzen = tu étais

Zu zinen = vous étiez

Hura zen = il était

Gu ginen = nous étions

Zuek zineten = vous étiez

Heek ziren = ils étaient.

32. IZAN. Régime indirect. Indicatif Imparfait

Ni mintzen = j'étais - (singulier)

Ni mintzazkizun = je vous étais

" mintzazion = je lui étais

" mintzazkizuen = je vous étais

" mintzazien = je leur étais

Gu ginen = nous étions (pluriel)

Gu gintzayzkizun = nous vous étions

gintzayzkion = nous lui étions

gintzayzkizuen = nous vous étions

gintzayzkien = nous leur étions.

33. UKAN. Indicatif Imparfait

Objet singulier

Nik nuen = je l'avais

Hi huen = tu l'avais

Zuek zenuen = vous l'aviez

Harek zuen = il l'avait

Guken ginen = nous l'avions

Zuek zenueten = vous l'aviez

Heiek zuten = ils l'avaient